



Declaración Institucional del Lehendakari ante la crisis humanitaria de las personas refugiadas

Pedimos y ofrecemos un compromiso

La política en su sentido más genuino, ya sea ejercida desde las instituciones o desde la sociedad civil, está íntimamente vinculada a los significados de la empatía. No solo es la capacidad de ponerse en el lugar de otro ser humano, es la capacidad de preocuparse y ocuparse por otras personas. La empatía es la experiencia que permite comprender la importancia de perseguir el bien común tanto, al menos, como el bien particular.

Intervenir en política desde los valores del humanismo y la democracia es promover una cultura de convivencia para una sociedad que se abre más allá de sí misma y que es capaz de solidaridad hacia dentro y hacia fuera. La crisis humanitaria de las personas refugiadas que huyen de la guerra en el Mediterráneo es para Europa una interpelación directa al sentido más profundo y noble de esta idea de la política.

Como representantes de la política en Euskadi no podemos aceptar de forma acrítica la respuesta insuficiente e ineficiente de la Unión Europea ante esta crisis humanitaria. Reconocemos la enorme complejidad de su gestión. Sabemos que sus causas, consecuencias y soluciones tienen un carácter poliédrico y multilateral.

No obstante, confrontado con la situación de extrema urgencia humanitaria que aborda, el balance de resultados no es asumible. La unión Europea en su conjunto, apenas ha cumplido el 20% de los compromisos adquiridos en materia de reubicación y reasentamiento de personas refugiadas. No podemos olvidar que sólo en 2016, más de 5.000 personas han muerto en el Mediterráneo, la mayoría de ellas huyendo de la guerra.

En el ser de Europa, intervenir en política representa responder a un principio de solidaridad, un compromiso de responsabilidad y un deber de legalidad que fundamentan su propia historia.

-El principio de solidaridad implica prestar auxilio a quien se encuentra en situación extrema de padecimiento, necesidad y emergencia, con mayor motivo si está huyendo de la injusticia y la devastación de la guerra.

-El compromiso de responsabilidad supone asumir el liderazgo en la defensa de los derechos humanos y la dignidad de las personas y el compromiso institucional,

político y social derivado del mismo, especialmente en situaciones de gran vulnerabilidad.

-El deber de legalidad conlleva cumplir el derecho internacional, en este caso, la Convención de Ginebra de 1951, el artículo 14 de la Declaración de Derechos Humanos y el artículo 18 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión porque son de obligado cumplimiento para Europa.

Pedimos un cambio. Solicitamos una reacción que modifique cuantitativa y cualitativamente la respuesta de la Unión Europea y de los Gobiernos estatales a la crisis de las personas refugiadas. La solución a esta crisis requiere una colaboración multilateral activa. Es necesario anteponer la causa del bien común de la solidaridad a la mirada del interés particular. Es necesario poner en común soluciones y alternativas antes que reservas y barreras.

Presentamos dos propuestas. Proponemos crear un Sistema de Refuerzo Complementario para la acogida de personas refugiadas, mediante una colaboración articulada del Gobierno Vasco, los Ayuntamientos, las Diputaciones Forales, y las entidades sociales con el Gobierno español. Proponemos impulsar la vía de los visados humanitarios de un modo acordado y coordinado entre diferentes instituciones y entidades sociales.

Ofrecemos un compromiso. Las instituciones vascas y las entidades de la sociedad civil ofrecen su disposición y compromiso para colaborar activamente en la acogida de personas refugiadas y poner en el marco de sus competencias y posibilidades los medios y recursos necesarios.

Las instituciones vascas y las entidades de la sociedad civil pedimos y ofrecemos un compromiso para ofrecer una respuesta eficiente a la crisis humanitaria de las personas refugiadas. Todo ello, por principio de solidaridad, responsabilidad y legalidad.



Lehendakariaren adierazpen instituzionala errefuxiatuen krisi humanitarioaren aurrean

Konpromisoa eskatu eta eskaintzen dugu

Politika, zentzu garbienean, enpatiaren esanahiei dago estu lotua, izan erakundeetatik egindako politika, izan gizarte zibilak egindakoa. Enpatia ez da beste pertsonaren lekuan jartzeko gaitasuna bakarrik, beste pertsona bazuengatik kezkatzeko eta haiez arduratzeko gaitasuna ere bada. Norberaren ongizatearen gainetik edo gutxienez horren pare, guztion ongizatea lortzearen garrantzia ulertzen laguntzen duen esperientzia da enpatia.

Humanismoaren eta demokraziaren baloreetan oinarrituta politikan parte hartzea bizikidetzaren aldeko kultura sustatzea da, bere baitako ate-leihoak kanpora zabalik dituen eta barruan zein kanpoan elkartasuna erakusteko gaitasuna duen gizarte batentzat, hain zuzen. Politikari buruzko ideia horren zentzu sakon eta nobleenera jotzeko eskatzen dio Europari Mediterraneoan gerratik ihes egiten duten errefuxiatuen krisi humanitarioak

Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari politiko garen aldetik ezin dugu onartu modu akritikoan Europar Batasuna krisi humanitario honi ematen ari den erantzuna, ez baita ez nahikoa, ez eraginkorra. Krisiaren kudeaketa konplexutasun handikoa dela aitortzen dugu. Haren arrazoiak, ondorioak eta konponbideak polidrikoak eta aldeaniztunak direla badakigu.

Hala ere, egoeraren larritasuna kontuan hartuta, hots, murreko larrialdi humanitarioa, emaitzen balantzea ez da onargarria. Europar Batasunak, oro har, errefuxiatuak birkokatzeko eta birlekuratzeko hartutako konpromisoen %20 baino ez ditu bete. Eta ezin dugu ahaztu, 2016. urtean bakarrik, 5.000 lagun baino gehiago hil direla Mediterraneo aldean, gerratik ihes gehienak.

Europaren izaerarekin bat etorrira, politikan parte hartzeak elkartasun-printzipio bati erantzuten dio, erantzukizun konpromiso bati eta legezketasun eginbeharrari, printzipio horietan oinarritzen baita Europaren historia.

- **Elkartasun-printzipioak zera dakar, laguntza ematea muturreko sufrimenduan eta premia larrian dagoenari, are gehiago gerra batek dakarren injustizia eta suntsipenetik ihes badator.**

- **Erantzukizun konpromisoak dakarrena giza eskubideen eta pertsonen duintasunaren defentsaren erantzukizuna hartzea da, baita erantzukizun horrek daka-**

ren konpromiso instituzionala, politikoa eta soziala ere, ahultasun handiko egoeretan bereziki.

- **Legezkotasunaren eginbeharrak nazioarteko zuzenbidea betetzea dakar. Kasu honetan, 1951ko Genevako Konbentzioa, Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 14. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunaren 18. artikulua, denak ere Europak nahita ez bete beharrekoak baitira.**

Aldaketa bat eskatzen dugu. Erreakzio bat eskatzen dugu, Europar Batasunaren eta estatuotako gobernuak errefuxiatuen krisiari emandako erantzuna modu kuantitatiboan eta kualitatiboan aldatuko duena. Krisi hau konponzeko ezinbestekoa da alde askotako lankidetzak aktiboa. Norberakerian oinarritutako interesen aurretik guztien ongian oinarritutako elkartasuna lehenetsi behar dugu. Konponbideak eta alternatibak bateratu behar ditugu eta ez erreparoa eta hesiak

Proposamen bi aurkezten ditugu. Batetik, errefortzu sistema osagarria sortzea proposatzen dugu errefuxiatuen harrerarako. Eusko Jaurlaritzak, udalak, foru aldundiak eta Espainiako Gobernuako entitate sozialen artean egituratutako lankidetzaren bidez sortuko litzateke. Bestetik, bisa humanitarioen bidea bultzatzea, erakunde eta entitate sozial ezberdinekin ados jarrita eta koordinatuta.

Konpromiso bat eskaintzen dugu. EAEko erakundeak eta sozietate zibileko entitateek euren konpromisoa eta prestasuna erakutsi dute errefuxiatuen harreran modu aktiboan laguntzeko eta beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak eskura jartzeko, bakoitzak bere eskumenean eta ahalen barruan.

EAEko erakundeak eta sozietate zibileko entitateek konpromisoa eskatu eta eskaini egiten dugu pertsona errefuxiatuen krisi humanitarioari erantzun eraginkorra emateko. Hori guztia, elkartasun-, erantzukizun- eta legezketasun-printzipioengatik.